

Ingurumen Buletina

- 1. Nahi beste arrazoi AHT gelditzeko***
- 2. Hondakinak eta erdizkako egiak***
- 3. Ingurumenaren egoera Europan, eta osasunean duen eragina***
- 4. Naomi Klein: "Klima-aldaketa da kapitalismoaren aurkako narratibarik indartsuena"***

1. Nahi beste arrazoi AHT gelditzeko

Abiadura handiko trenaren (AHT) gaia sarritan landu dugu buletin honetan, arrazoiak baititugu horretarako. Inoiz hasi behar ez litzatekeen obra bat dela gero eta argiago erakusten duten datuak ari gara ezagutzen etengabe, FEDEAk eginiko errentagarritasun finantziario eta sozialaren txostena esaterako, edo Eusko Jaurlaritzako arduradunek egin dituzten adierazpenak esaterako. Hemen doakizue zerrenda bat informazio berrienarekin:

- Estatuan ez dago AHTrik eraikuntza gastuak ordainduko dituenek, koste altuagatik eta erabilpen urriagatik.
- Madrid-Iparralde korridoreak (Euskal Y bere baitan hartzen duena), beste korridoreetan ez bezala, azpiegitura eraikitzearen kostea ez ordaintzeaz gain, linearen esplotazioa berak galerak sortzen ditu. ADIFek, edo kudeaketa beregain hartu nahi duen Eusko Trenbide Sareak, galerak izango lituzke azpiegitura hau gatik.
- Estatuak epe luzera, ez du inbertitutakoa berreskuratuko, eta gainera herritarrok estatuak inbertituriko euro bakoitzagatik zentimo bar gehiago jarri beharko dugu.
- Euskal Y hartzen duena koste aldakorrek, finantziarioak eta sozialak, kitatu ezin izango

dituen korridore bakarra izango da.

- Aurrikuspenek esaten dute errepidetik eta hegazkinetik AHTra aldatzen diren bidaiarien kopurua beheraka doala.
- Eusko Jaurlaritzak ez du daturik euskal hiriburuen arteko eskaria zein izan daitekeen esateko, eta ez du aztertu txartelaren prezioa zein izan daitekeen ere.
- Obrak aurrera doaz, gastuak eta gaitzesak pilatzen, oraindik guztia airean dagoen bitartean.
- Trena ez da hasieran esaten zen bezain azkarra izango.
- Europar sarearekin konexioa ez dago ziurtatuta, Frantziak momentuz 2032ra arte atzeratu baitu.
- Bilboko eta Gasteizko sarbideak ez daude zehaztuta eta behin behineko gaur egungo trenbideak erabiliko dira.
- Bidaien iraupenak gora egin du obrak hasi zirenetik: Donostia- Gasteiz 55 minutuan hasierako 34 minutuen ordeztu, Gasteiz-Bilbo 43 minutuan 28 minutuen ordeztu, eta Bilbo-Donostia 55 minutuan eta ez 38 minutuan. Iraupen hauek ez dute ezberdintasun handirik errepide bidezko trafikoarekin alderatuta.
- Polemika dago Gipuzkoa eta Bizkaiko zati askoren atzean gaitzes handien ondorioz,

Madril eta Bartzelona arteko trenaren linean bezala, non duela hilabete batzuk epaitegitik pasa ziren hainbat politikari eta enpresaburu.

Arrazoi hauengatik, eta aurreko buletinetan azalduko beste batzuegatik ere, ELAk obrak geldiaraztea eta inondik ere iraunkorra ez den azpiegitura honi diru publiko gehiago ez ematea exijitzen du. Badakigu non dagoen zerbitzu publikoetan falta den dirua, herritarrok murrizketa gehiago ez jasateko eta gure bizi baldintzak okerrera ez egiteko beharrezkoa den dirua.

2. Hondakinak eta erdizkako egiak

Azken asteetan komunikabide ezberdinetan hondakinen gestioari buruzko hainbat datu argitaratu dituzte, eta denak ez dira egiak, edo gutxienez informazio osagarria falta zaie. Hau argitze aldera, hona hemen azalpen zehatzago bat.

Batetik Bizkaiko Foru Aldundiak eman dituen 2014ko hondakinen datuen ingurukoa da lehen azalpena. Foru Aldundiaren arabera, birzikapen indizea %67,7koa izan da 2014an, 2013an %62,5koa izan zen bitartean. Baina datu honek tranpa dauka, ez dago hondakinei buruzko Europako Zuzentzarauak dioen

bezala kalkulatu, beraz ezin da inguruko datuekin konparatu. Zuzentzarauaren arabera, eta Europako beste herrialde batzuetan egiten den bezala kalkulatu gero, Bizkaiko birziklapen tasa 2014an %38,5 izan da, 2020rako Zuzentzarauak exijitzen duen %50eko birziklapen tasatik oso urrun.

Argitu nahi dugun beste informazioa, komunikabide batzuetan Debagoieneko mankomunitatean hondakinen bilketa kostuaren inguruan esan dena da. Mankomunitatean atez atekoaren ezarpenak hondakinen bilketa kostua %104 garestitu da, egia da eta hori dio Herri Kontuen Epaitegiak eginiko txostenak ere. Baina datu honek esan nahi duena argitu beharra dago, ez baita prentsan zenbaitek erdizka azaldu duena. Bilketa kostua ez da hondakinen kudeaketa osoaren kostua. Herritarrek ordaintzen duena zera da: bilketa kostua + tratamendu kostua - birziklatze salmentak.

Bilketa kostua igo egin da esan bezala, baina tratamendu kostuek %27,8ko jaitsiera izan dute eta birziklapen salmentek %59,6ko igoera. Kalkulu osoa eginda, eta Herri Kontuen Epaitegiak txostenean jaso du, dagoeneko ordaintzen den tasarekin bilketa kostua %100ean estaltzen da. Gainera bilketa sistema berriaren ezarpena guztiz amaitzen

denean kostuak are gehiago murriztuko dira. Bestalde, txostenak Debagoieneko Mankomunitatearen kudeaketa ekonomiko finantzarioa ontzat ematen du.

Sarritan emandako informazioak ez dira gezurrak izaten baina datuak falta izaten dira egoera osotasunean aztertu ahal izateko, eta azalpen hauek beharrezko bihurtzen dira.

3. Ingurumenaren egoera Europan, eta osasunean duen eragina

Ingurumeneko Agentzia Europarrak (IAE), *“Ingurumena Europan. Egoera eta etorkizuna 2015”* izeneko txostenean, ohartarazten du Europar Batasunak (EB) politika berriak, eta askoz ere handinahiagoak, beharko dituela 2050erako ingurumenari buruzko bere helburuak bete nahi baditu.

Europar Batasunak klima-aldaketaren aurka ekiteko asmoa du berotegi-efektuko gasen emisioa %80 eta %95 bitartean murriztuaz, baina hori lortzeko egungo neurriak ez dira nahikoak, IAEn arabera. EBko legediak azken urteetan airearen eta uraren kalitatea eta hondakinen kudeaketa hobetzea eragin du, baita emisioak gutxitzea ere (%19 1990tik hona). Baina beste arazo

ugari dago: klima-aldaketa leundu eta hari moldatzea, kontaminazio kimikoa eta bioaniztasunaren galera, besteak beste. Espezieen %60 eta hauen habitaten %77 kontserbazio egoera txarrean daude, eta okerrera ari dira egiten; hots, aberastasun natural gehiago galduko da.

Ezinbestekoa zaigun produkzio eta kontsumo ereduaren eraldaketa ez da mehatxu bat, garapen ekonomikorako aukera bat baizik, dio IAEk. Ingurumen politikek emaitza izan ohi dute ondo diseinatuta badaude, goranahiak badira eta kudeaketa egokia badute. Ekonomia, ingurumena eta osasuna hobetzeko lagungarri dira.

Ingurumenaren aldetik osasunarentzako arriskurik handiena atmosferaren kontaminazioa da. Hirietako europar biztanleriaren ia %20 europar legediak ezarritakoak baino kontaminazio maila handiagoak jasaten ditu. Munduko Osasunaren Erakundearen zuzentarauak aplikatuz gero, berriz, portzentajea %90etik gorakoa da. Partikula txikiek eta ozonoak osasun arazo larriak eragiten dituzte. IAEn kalkuluek diote 2011n Europan 430.000 heriotza eragin zituztela partikula txikiek eta 16.000 heriotza ozonoak. Txosten honen arabera, airearen kontaminazioak biriketako

kantzer ugari, arnasketa sistemaren eta sistema kardiobaskularraren gaitz asko eragiten ditu. Halaber, ohartarazten du klima aldaketak eragindako fenomeno natural gero eta bortitzagoek, esaterako uholde eta lehorteeak, urarekin eta osasunarekin lotutako arazoak areagotuko dituztela.

ELAn betidanik esan izan dugu ingurumena defenditzea osasunaren alde egitea dela; IAEn txosten honek arrazoia ematen digu. Horregatik ingurumenaren eta langileen zein herritar guztien osasunaren alde borrokan jarraituko dugu, orain arte bezala.

4. Naomi Klein: "Klima-aldaketa da kapitalismoaren aurkako narratibarik indartsuena"

Naomi Klein kazetari eta aktibistak liburu bat argitaratu du, gaztelaniaz "Esto lo cambia todo. El capitalismo contra el clima" izenburua duena. Lan honekin agerian uzten du kapitalismoaren eta klima-aldaketaren arteko lotura; batzutan ez dugu argi ikusten, baina txanpon berearen bi aurpegiak baino ez dira. Kleinek lehenago ere salatu izan ditu kapitalismo basatiaren arriskuak, baina orain badirudi amaiera azkartzen ari dela. Bere ondorioz larriena den klima-aldaketak

iraungipen epea ezarri dio sistema neoliberalari. Natura saiatzen ari da ulertarazten eredu ekonomiko guztiz desberdina behar dugula. Klima-aldaketaren auzia hain denbora luzez atzeratu dugunez, irtenbide erradikalak baino ez zaizkigu geratzen. Sistema ekonomiko eta politikoa goitik behera aldatu behar da, sistemaren mamia den hazkundearen logikari aurre eginez.

Naomi Kleinek dio liburu hau aurreko bere lanari (*La doctrina del shock*) erantzuteko idatzi duela; lan hartan azaldu nahi izan zuen merkatu libreko politika asko ezarri zirela eraldatze sozial handi, desastre eta nahasmendu garaietan. Sistemak dotrina ezartzeko gaitasun handia duela jakinik, irtenbideak bilatu behar dira; jendearen shock dotrina bat, krisiari erantzuteko, demokrazia indartuz eta mundu berdinkoia bat eraikiaz. Kleinek badu erantzun bat: "klima-aldaketaren justizia. Klima-aldaketa da kapitalismoaren aurkako kontakizunik indartsuena". Horregatik dei egiten du mugimendu sozialek, austeritatearen kontra daudenean, politika sozialak berreskuratzeko borrokan badihardute ere, ez dezaten klimaren auzia ahaztu.

Kazetariaren arabera, "Europa klima-

aldaketaren aurkako borrokan aitzindari zen, baina hau ekonomia suspertzeko ahaleginaren poderioz sakrifikatu egin da. Klima-aldaketari aurre egiteko arlo publiko guztia garatu behar da. Emisioak murrizteko jendeak sistema energetikoaren kontrola berreskuratu behar du, eta multinazionalak arautu. Horregatik, austeritatearen aurkako borrokaren eta klima-justiziaren arteko mugimenduen gatazkak aztertzean, jabetzen zara bi joerek bat egin behar dutela". [Hemen](#)

ikusi dezakezue Naomi Kleini eginiko elkarrizketa osoa.

ELA bat dator Kleinen iritziarekin. Klima-aldaketa kapitalismoaren ondorioetako bat da; bi horiei jazartzeko bide bakarra sistema aldatzea da. Sistema aldaketa hau izango da Bilbon urriaren 24an ospatuko den Alternatiben Herriaren ardatz nagusia. Egun horretan agerian geratuko da alternatibak badaudela eta martxan daudela.